

2. ETA 3. DOKUMENTUAK

**EGIKARITZE
PROGRAMA ETA
AZTERLAN
EKONOMIKO ETA
FINANTZARIOA**

Egikaritze-programa planaren estrategia gauzatzeko tresna da eta, horrenbestez, denborak aurrera egin ahala erabakiak hartzeko gida izatea du eginkizun; 16 urteko horizontea aintzat hartzen da, 4na urteko lau programazio-alditan antolatuta. Programa honen helburuen artean, planaren proposamen handiak garatzeko funtsezko alderdiak azpimarratzea aintzat hartzen da. Proposamen horietako asko ekimenak beren aurrekontu-programetan eta jardun-programetan sartu dituzten arloko administrazioen jardunei dagozkie.

Horiek horrela, programa honen ondorioetarako Lurraldearen Zatik Planak lurraldearen gaineko zuzeneko ekintzatat ezartzen dituen eskualde-mailako eta ekimen publikoko estrategiak kontuan hartzen dira, planteatutako lurralde-eredua erdiesteko funtsezkoak direnak, alegia:

2003-2006 programa	2007-2010 programa	2011-2014 programa	2015-2018 programa
Azpiegituren Sistema Orokorra	Azpiegituren Sistema Orokorra	Azpiegituren Sistema Orokorra	Azpiegituren Sistema Orokorra
1. Goi Nerbioiko arroaren arazketa eta saneamendua			
2. Oinarrizko bide-sarea			
		3. Llodion trenbidea lurperatzea	3. Llodion trenbidea lurperatzea
Espazio Libreen Eskualdeko Sistema	Espazio Libreen Eskualdeko Sistema	Espazio Libreen Eskualdeko Sistema	Espazio Libreen Eskualdeko Sistema
4. Nerbioiko Parke Lineala	4. Nerbioiko Parke Lineala	4. Nerbioiko Parke Lineala	
5. Ibilbideen eta atsedeneremuen sarea	5. Ibilbideen eta atsedeneremuen sarea	5. Ibilbideen eta atsedeneremuen sarea	
Jarduera Ekonomikoak	Jarduera Ekonomikoak	Jarduera Ekonomikoak	Jarduera Ekonomikoak
	6. Llodioko Industrialdea	6. Llodioko Industrialdea	
	7. Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa	7. Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa	

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK	I. LAURTEKOA (2003-2006)					GUZTIRA
	ARABAKO FORU ALDUNDIA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	EUSKO JAURLARITZA	SOZIJETATE PUBLIKOA	ADMINISTRAZIO ZENTRALA	
1. Goi Nerbioiko arroaren arazketa eta saneamendua	—	—	—	—	10.800	10.800
2. Oinarrizko bide-sarea	37.100,48	2.546,49	—	—	—	39.646,97
3. Llodion trenbidea lurperatzea	—	—	—	—	—	—
4. Nerbioiko Parke Lineala	110	—	50	—	—	160
5. Ibilbideen eta atsedeneremuen sarea	74,099	72,145	—	—	—	146,244
6. Llodioko Industrialdea	—	—	—	—	—	—
7. Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	37.284,58	2.618,635	50	—	10.800	50.753,21

* Mila €

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK	II. LAURTEKOA (2007-2010)					GUZTIRA
	ARABAKO FORU ALDUNDIA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	EUSKO JAURLARITZA	SOZIJETATE PUBLIKOA	ADMINISTRAZIO ZENTRALA	
1. Goi Nerbioiko arroaren arazketa eta saneamendua	—	—	—	—	—	—
2. Oinarrizko bide-sarea	—	—	—	—	—	—
3. Llodion trenbidea lurperatzea	—	—	—	—	—	—
4. Nerbioiko Parke Lineala	740	100	420	—	—	1.260
5. Ibilbideen eta atsedeneremuen sarea	96,306	—	—	—	—	96,306
6. Llodioko Industrialdea	—	—	750	—	—	750
7. Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa	—	—	3.750	—	—	3.750
GUZTIRA	836,306	100	4.920	—	—	5.856,306

* Mila €

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK	III. LAURTEKOA (2011-2014)					GUZTIRA
	ARABAKO FORU ALDUNDIA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	EUSKO JAURLARITZA	SOZIJETATE PUBLIKOA	ADMINISTRATZIO ZENTRALA	
1. Goi Nerbioiko arroaren arazketa eta saneamendua	—	—	—	—	—	—
2. Oinarrizko bide- sarea	—	—	—	—	—	—
3. Llodion trenbidea lurperatzea	—	—	—	300	—	300
4. Nerbioiko Parke Lineala	95	15	55	—	—	165
5. Ibilbideen eta atseden-eremuen sarea	174,294	—	—	—	—	174,294
6. Llodioiko Industrialdea	—	—	750	—	—	750
7. Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa	—	—	3.750	—	—	3.750
GUZTIRA	269,294	15	4.555	300	—	5.139,294

* Mila €

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK	IV. LAURTEKOA (2015-2018)					GUZTIRA
	ARABAKO FORU ALDUNDIA	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	EUSKO JAURLARITZA	SOZIJETATE PUBLIKOA	ADMINISTRATZIO ZENTRALA	
1. Goi Nerbioiko arroaren arazketa eta saneamendua	—	—	—	—	—	—
2. Oinarrizko bide- sarea	—	—	—	—	—	—
3. Llodion trenbidea lurperatzea	—	—	—	4.800	—	4.800
4. Nerbioiko Parke Lineala	—	—	—	—	—	—
5. Ibilbideen eta atseden-eremuen sarea	—	—	—	—	—	—
6. Llodioiko Industrialdea	—	—	—	—	—	—
7. Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	—	—	—	4.800	—	4.800

* Mila €

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak Lurraldearen Zatiko Planaren gainean aurreikusten dituen zehaztapenak garatzeko oinarrizko dokumentuetako bat azterlan ekonomiko eta finantzarioa da. Dokumentu horrek inbertsio publikoko proiektuak programatzea eta ebaluatzea du helburu besteak beste, eta horretarako herritarren gogobetetasun kolektibo edo publikoa hartzen du ardatz.

Aurreko puntuan definitutako egikaritze-programa erreferentziatzen hartuta, honako helburu hauek planteatzen dira azterlan ekonomiko eta finantzarioaren edukiarentzat:

- Egikaritze-programan definitutako jardunak kostu gisa adieraztea.
- Inbertsioen kostua beren gain hartzen duten inbertsio-agentek zehaztea.
- Ekintzen programazioa justifikatzea, esku hartzen duten erakunde publikoaren ekonomia, aurrekontu, inbertsio eta kudeaketa arloko ahalmenaren arabera.

Azterlan ekonomiko eta finantzarioaren funtzioa planaren proposamenen bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzea eta udalaren eta esku hartzen duten udalaz gaindiko gainerako agenteen neurriak eta plangintza ekonomikoa ezartzea da, azterlan ekonomiko eta finantzarioa erreferentziatzen hartuko baitute beren aurrekontuak egiteko.

Azterlan ekonomiko eta finantzarioaren bideragarritasuna aztertzeke honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Planean proposatutako ekintzak egikaritzeko inbertsio publikoaren baliabideak kalkulatzeko.
- Inplikaturako administrazioen kargurako inbertsio-premiak eta kalkulaturako baliabideak konparatzea.

Oro har, azterlan ekonomiko eta finantzarioa udal-plan baten proposamenak baloratzeko tresna da. Lurraldearen Zatiko Planaren kasuan, ordea, bere proposamenak eskualde-egituraren

interes orokorrekoak dira definizioz, eta zati batean zein osorik udalerrri zehatzetan kokatu arren, udalaz gaindiko ekimenetan gauzatzen dira. Hori dela-eta, proposatutako jardunak aurrera eramateaz arduratuko diren erakundeak esleitzearen ondorioetarako, udalaz gaindiko erakundeak, aldundiak eta Eusko Jaurlaritza aintzat hartuko dira batik bat, nahiz eta udalek beren udalerrian kokatzen diren ekintzak gauzatzen lagundu beharko duten, lizentziak eta baliabide materialak eskueran jarriz, horretarako aukera dagoenean udal-lurzoruaren lagapenak eginez eta abar. Horiek horrela, azterlan ekonomiko eta finantzarioa formalizatzeko honako irizpide hauek hartu dira aintzat:

- a. Hasiera batean bederen, udalerriei ez zaie zuzeneko erantzukizunik esleitzen jardunen finantzaketan. Horrek ez du esan nahi jardunok zehazten direnean egokitzat jotzen diren akordioetara irits ez daitezkeenik.
- b. Ibilbide bigunak eta atsedan-eremuak egokitzeko jardunak dagozkien foru-aldundien erantzukizuntzat jotzen dira, erakunde horiek baitira gisa horretako ekimenak finantzatu ohi dituztenak. Ibilbide bigunak egokitzeko ekintzak errepide-sarea hobetzeko ekimenekiko paralelo garatzea iradokitzen da, ekipamendu bigun horiek bide-sarearen babeseko eta jabari publikoko zerrenden gainean eginez.
- c. Eskualde-mailako jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko jardunei dagokienez, zuzenean Eusko Jaurlaritzari esleitzeko erabakia hartu da, berak Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean egindako proposamenen ondorio dira-eta. Irizpide hori hartzea ez da oztopo jardunak garatzen direnean agente publiko eta pribatuek parte hartzeko bestelako formulak aukeratu ahal izateko.
- d. Antzeko irizpidea hautatu da trenbidea lurperatzeari dagokionez. Hasiera batean jardun hori administrazio zentralak, RENFERen eta Sustapen Ministerioaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak eta Lodioko Udalak finantzatu beharko lukete. Eragiketa horiek oso konplexuak direla eta sortu behar dituzten gainbalioen arabera baldintza desberdinetan garatuko direla kontuan hartuta, erakunde horiek parte hartuko duten sozietate publiko bat eratuz sustatzeko hasierako irizpidea hautatu da.

Lurraldeak garrantzi handiagoko erakundeen inbertsioa bereganatzeko dituen aukerak balioestearen ondorioetarako, eskualde-egiturako udalerrien biztanleriaren eta azaleraren aldagaiak aintzat hartzen dira hurrenez hurreneko lurralde historikoen testuinguruan.

Horiek horrela, Arabako udalerriek Araba osoko biztanleriaren %11,7 eta lurraldearen azaleraren %11 hartzen dute.

Bizkaiko udalerriek, bestalde, lurralde historiko osoko biztanleriaren %0,52 hartzen dute lurraldearen azaleraren %6,3an.

Lodioko udalerrriaren gastuen aurrekontua 22.070.937 eurokoa izan zen 2000. urtean.

Arabako Foru Aldundiari dagokionez, 2000. urterako guztizko aurrekontua 1.323.434.700 eurokoa izan zen. Zenbateko horretatik, 43.417.100 euro Nekazaritza eta Ingurugiro Sailak eta Herrilan, Hirigintza eta Garraio Sailak egindako inbertsio errealei dagozkie.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bestalde, 3.989.115.700 euroko guztizko aurrekontua zuen 2000. urtean, eta Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailaren eta Herri Lan eta Hirigintza Sailaren inbertsio errealei 66.769.100 euroko zenbatekoa zegokien.

Biztanleriaren araberako banaketari erreparatuta, inbertsio horietatik honako urteko kopuru hauek legozkioke eskualde-egiturari:

- 4.775.881 euro Arabako Foru Aldundiko sailen inbertsio errealetatik.
- 347.192 euro Bizkaiko Foru Aldundiko sailen inbertsio errealetatik.

Jardun horietarako aurrekontu-erabilgarritasun horren %3ko esleipena aintzat hartuta ere, aski baliabide daude proposatutako jardunak garatzeko, eta hori udalen, Eusko Jaurlaritzaren, sektore pribatuaren eta administrazio zentralaren —Konfederazio Hidrografikoaren, RENFERen eta Sustapen Ministerioaren bitartez— finantza-lankidetzako aukerak kontuan hartu gabe.

1. GOI NERBIOIKO ARROAREN ARAZKETA ETA SANEAMENDUA

Izendapena: Goi Nerbioiko arroaren arazketa eta saneamendua.

Deskribapena: Gaur egun, Nerbioiko arroko guneez, Llodiotik ibaiaren sorbururaino, ez dute ur zikinak arazteko sistemarik. Urduña-Orduñan, Amurrion (Markijana) eta Llodion (Besaurbe) ur zikinen hiru araztegi eta instalazio berri horietarainoko dagozkien kolektore-sareak eraikitzea proposatzen da.

Gaur egungo egoera: Eusko Jaurlaritzak aztertzen ari da Partzuergoak aurkeztutako proposamena.

Sustatzaileak: Ingurumen Ministerioa (finantzaketa), Kantauriko Urkidetza Uren Partzuergoa (sustapena eta kudeaketa), Eusko Jaurlaritzak.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Administrazio zentrala	10.800	-	-	-
Guztira	10.800	-	-	-

Epe teorikoa: Saneamendu arloko jardunek atzerapen nabarmena izan dute hasieran aurreikusitako egutegiekiko eta, horrenbestez, presakotzat jotzen da lehen laurtekoan zehar amaitzea.

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Araztegiak eta kolektore-sarea	10.800	-	-	-

2. OINARRIZKO BIDE SAREA

Izendapena: Oinarrizko bide-sarea.

Deskribapena: Proposatutako bide-sistema antolatzeko eta eskualde-egituraren kanpo-konektagarritasuna ziurtatzeko bide-sarearen oinarrizko elementuak eraikitzea. Aintzat hartutako obrak honako hauek dira: A-625 errepidean Amurrioko saihsabidea amaitzea eta Luiaondo – Amurrio eta Urduña-Orduña – Amurrio tartean hobetzea, A-624 errepidea Amurrio – Artziniega tartean hobetzea, Artziniegako saihsabidea eta Enkartzioekiko iparralderanzko konexioa hobetzea, Llodio – Okondo zuzeneko konexioa eta BI-2522 errepidean zeharreko Llodio – Okondo konexioa hobetzea.

Gaur egungo egoera: Obrak hainbat fasetan egiten ari dira, proiektuak, aurreproiektuak edo aurretiazko azterlanak egiten.

Sustatzaileak: Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Arabako Foru Aldundia	37.100,48	-	-	-
Bizkaiko Foru Aldundia	2.546,49	-	-	-
Guztira	39.646,97	-	-	-

Epe teorikoa: Proposatutako jardunak Euskadiko Errepideen Plan Orokorrean, Arabako Errepideen Plan Integralean eta Bizkaiko Errepideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean definituta daude.

Programa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Amurrioko saihsabidea	17.729,86	-	-	-
A-624 errepidea hobetzea	12.621,25	-	-	-
A-625 errepidea hobetzea	3.413,75	-	-	-
Artziniegako konexioak	805,36	-	-	-
Llodio - Okondo	2.530,26	-	-	-
Llodio - Orozko	2.546,49	-	-	-

3. LLODION TRENBIDEA LURPERATZEA

Izendapena: Llodion trenbidea lurperatzea.

Deskribapena: Llodioko hirigunean zehar igarotzen den trenbidea kentzea eta bere ordean hirigintza-inpaktuak saihestuko dituen 850 metro luze inguruko lurpeko linea berria ezartzea, hirigunearen hiri-berrikuntza eta ibaia hiri-eszenan sartzea ahalbidetuz. Ekimen horrek gaur egungo geltokia trenbiderako sargune gisa egokitzea hartu beharko du bere baitan.

Gaur egungo egoera: Proposamenak.

Sustatzaileak: RENFE sozietate publikoa, Eusko Jaurlaritza, Llodioko Udala.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Sozietate publikoa	-	-	300	4.800

Epe teorikoa: Hirugarren eta laugarren laurtekoetan garatzea planteatzen den epe luzerako ekimena da.

Programa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Aurretiatzko azterlanak eta administrazio-akordioak	-	-	300	-
Lurperatzeko obrak	-	-	-	4.800

4. NERBIOIKO PARKE LINEALA

Izendapena: Nerbioiko Parke Lineala.

Deskribapena: Nerbioi ibaiaren ertzak eta ibilgua Delikatik Llodioraino egokitzea atsedenezko espazio, ingurumen-intereseko eremu eta udalaz gaindiko konexio-elementu berde handi gisa erabiltzeko. Garapena lau esparru handitan antolatzea proposatzen da: Llodio – Luiaondo, Luiaondo – Amurrio, Amurrio – Urduña-Orduña eta Urduña-Orduña – Delika tartetean hain zuzen.

Gaur egungo egoera: Proposamenak.

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Eusko Jaurlaritzak	50	420	55	-
Arabako Foru Aldundia	110	740	95	-
Bizkaiko Foru Aldundia	-	100	15	-
Guztira	160	1.260	165	-

Epe teorikoa: Proposatutako jardunak lehen hiru laurtekoetan zehar garatu beharko dira. Ildo horretan, lehentasunezkoa da Llodio – Luiaondo tartea egokitzea, ondoren Luiaondo – Amurrio eta Amurrio – Urduña-Orduña tartea eta, azkenik, Urduña-Orduña – Delika tartea da lehentasunik txikiena duena.

Programa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
PL-1 Llodio - Luiaondo	160	-	-	-
PL-2 Luiaondo - Amurrio	-	610	-	-
PL-3 Amurrio - Urduña-Orduña	-	-	165	-
PL-4 Urduña-Orduña - Delika	-	650	-	-

5. IBILBIDEEN ETA ATSEDEN EREMUEEN SAREA

Izendapena: Ibilbideen eta atsedeen-eremuen sarea.

Deskribapena: Espazioak eta ibilbideak egokitzea aire zabaleko aisia-jarduerak garatzeko eta oinezkoek eta txirrindulariek lurraldeaz gozatzeko. Lurzoru urbanizagarriaren kudeaketari atxikita ez dauden espazio libreak dira, lurzoru urbanizaezinean kokatuak beraz, eta bertan lurzoria lortzea eta jardunen aldiak zehar egokitzea aurreikusten da, ekimen publikoaren kargura betiere. Sare Berdeko ibilbideen kasuan, aldamenen dituzten bide-azpiegituren jabari publikoko esparruetan garatuko dira. Honako esparru hauetan jardutea proposatzen da: Santa Luzia atsedeen-eremua, Maroño atsedeen-eremua, Etxaurren atsedeen-eremua, Okondoko zirkuitua, Izaldeko zirkuitua, Orozkoko zirkuitua, Artziniegako zirkuitua, Aiarako haraneko zirkuitua, Maroñoko zirkuitua, Erbiko zirkuitua, Padurako zirkuitua eta Urduña-Orduñako zirkuitua.

Gaur egungo egoera: Proposamenak.

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Arabako Foru Aldundia	74,099	96,306	174,294	-
Bizkaiko Foru Aldundia	72,145	-	-	-
Guztira	146,244	96,306	17,294	-

Epe teorikoa: Proposatutako jardunak lehen hiru laurtekoetan zehar garatu beharko dira. Lehenetasun osoa eman zaio atsedeen-eremuak egokitzeari eta zirkuituetarako proposatutako lehenetasuna hurrengo programazio-taulan ikus daiteke; nolahi ere den, lurraldeko ingurumen-interes handieneko eremuei lotutakoak lehenetasunekoak jotzen dira:

Programa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Santa Luzia atsedeen-eremua	24	-	-	-
Maroño atsedeen-eremua	24	-	-	-
Etxaurren atsedeen-eremua	24	-	-	-
Okondoko zirkuitua	-	18,042	-	-
Pagolarko zirkuitua	-	20,775	-	-
Izaldeko zirkuitua	-	24,630	-	-
Orozkoko zirkuitua	43,545	-	-	-
Artziniegako zirkuitua	-	-	13,155	-
Aiarako haraneko zirkuitua	-	32,859	-	-
Maroñoko zirkuitua	-	-	102,504	-
Erbiko zirkuitua	-	-	28,509	-
Padurako zirkuitua	-	-	30,126	-
Urduña-Orduñako zirkuitua	30,699	-	-	-

6. LLODIOKO INDUSTRIALDEA

Izendapena: Llodioko Industrialdea.

Deskribapena: Industria-espazio berri bat garatzea, gehienez ere 10 hektareako azalerakoa, udalerrri bertako eskari endogenoa hartzera zuzendua. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko estrategia hau Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko esparruan, Llodio eta Areta artean, planteatzea iradokitzen da.

Gaur egungo egoera: Proposamena.

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Eusko Jaurlaritza	-	750	750	-
Guztira	-	750	750	-

Epe teorikoa: Ekimen hau bigarren eta hirugarren laurtekoetan zehar garatzea planteatzen da, gaur egun hutsik dauden lurzoruak finkatu eta egungo industria-kokaguneetako berrikuntza-ekimenen eta erabilera aldatzekoen ondorioz espazio berriak eskatu ahala.

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Llodioko Industrialdea	-	750	750	-

7. AMURRIO-AIARAKO ESKUALDEKO POLIGONOA

Izendapena: Amurrio-Aiarako eskualdeko poligonoa.

Deskribapena: Industria-espazio berri bat garatzea, 50 hektarea inguruko azalerakoa, eskari endogenoa eta Bilbao Metropolitarretik lekualdatutako jarduerak hartzera zuzendua. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko estrategia hau Luiaondo – Amurrio Iparraldea – Aiara esparruan planteatzea eta jarduera eta zerbitzu logistikoetarantz bideratzea iradokitzen da.

Gaur egungo egoera: Proposamena.

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza.

Ebaluazioa eta finantzaketa:

	I. laurtekoa	II. laurtekoa	III. laurtekoa	IV. laurtekoa
Eusko Jaurlaritza	-	3.750	3.750	-
Guztira	-	3.750	3.750	-

Epe teorikoa: Ekimen hau bigarren eta hirugarren laurtekoetan zehar garatzea planteatzen da, gaur egun hutsik dauden lurzoruak finkatu eta egungo industria-kokaguneetako berrikuntza-ekimenei eta erabilera aldatzeko ondorioz espazio berriak eskatu ahala.